

INPERIALISMOAREN AURKA, GEURE HERRIA SENDOTUZ ETA ESTATUA BERRERAIKITZEN

Biana (2006.4.28)

Amak erditu aurretik bere umekiarekin erlazioak dituela nahiko onartua dago, zehazki zein neurritarainokoa den ez badakigu ere. Umekiak berak ditu erlazioak jaiotze aurretik. Erlazio hauetan guk hartzen dugu parte. Elkar lotutako erlazio hauek martxan jarri, mantendu, garatu edo geldiarazten ditugu. Prozesu horiek asmo jakin batez burutzen ez baditugu ere, tartean sartuta, ezinbestean, suertatzen gara. Erlazio horietan geure eskuartzearen bitartez gu osatu egiten gara. Izan ere, horretan denok, denon artean partaidetza eta ardura baitugu.

Herria banakoaz osatua dagoela esatea ez da zuzena. Banako hori, horrela "hutsan" harturik behintzat. Banako horrek herriarekiko eratu dituen erlazioak eta loturak bere benetako izate sozialaren ezaugarriak dira. Herriarekiko dituen lokarriak hausten baditu, bere izatea galtzen du, ezin baita horrelakorik pentsatu ere egin, eta, alegia, horrelakorik gertatuz gero, "haur basati" moduko baten aurrean egongo baikinateke. Banako horrek, bere familia, lagunak, irakasleak, elkarrekin... behar baititu egunerokotasun horretan. Erlazio horietatik bere nortasuna, afektibitatea, jakintza, hizkuntza, kultura ...osatuz doa, hau da, herrikidetasuna eratuz. Banako "hutsa" ez da inongoa, ez da horrelakorik oraindik ikusi. Banako orok herrikidea behar du izan, ez du beste aukerarik. Banako "hutsaren" apologia totalitarismo hutsa da, izan ere, inperialisten eredu aldarrikatzea litzateke.

Alabaina, inperialisten eraginez, gizartean hedatua dagoen eredu mentala honetan datza: indibiduoak da lehena eta garrantzitsuena, eta horren inguruan " irudi sozialak ": familia, ikastola, lantokia, unibertsitatea ... bezalakoak egongo lirateke. " Irudi sozial " horiek indibiduoan zerikusirik ez balute bezala hartzen dira, gauzak bihurturik eta arrotzak bailiran, alegia. Pentsatzen da edo uste da herria, ez herrikideaz baizik eta indibiduoaz osatua dagoela. Sozietate prozesuan "Irudi sozial " horiek zerbait bitxiak bailiran eta zerikusia ez balute bezala tratatzen dira. Herrikideak bere herrikidetasuna, izan dituen erlazio sozialei esker osatua izan dela ikusi ordez, herritik banandua eta, aldi berean, ikusezinezko hesituraz inguratuak bageunde modura ematen da aditzera.

Globalizazioarekin batera ematen ari den teknologia berriak herriaren egitura gero eta eragin handiagoa izaten jarraitzen du. Telebista, sega potoa, ordenadoreak...komunikabideetan ematen ari diren berrikuntzak geure arteko harremanak guztiz aldatzen dizkigute. Lehen ematen zen herri mailako harreman hori eteten ari da, eta horren lekua Estatu inperialistak ari dira hartzen. Sozietate prozesuan familiaren eragina gero eta eskasagoa da. Familiaren egitura bera, ahula dago eta lehen betetzen zuen betekizuna galtzen ari da eta bere lekua Estatuaren komunikabideek hartu dute. Sozietate prozesuan Estatuaren eragina gero eta handiagoa da, eta hori noski, oso kezagarria da. Estatu gure sukaldara gero eta errazago ari da sartzen eta bere eragina ere gero eta handiagoa da.

Estatuak bere beste muturrean banako bainoa ez du nahi, banako ahula eta norekin lotu eta elkartzeko modua ez duena, ahal bada. Indibidualizazioa gero eta nabariago da lantokietan, lagunen artean, unibertsitatean, hirian eta bereziki familia barruan. Botere politikoa indartzen da eta honek sozializazioa bideratzen du. Estatuen eta herrikideen arteko elkarteak eta egiturak bere lekua galtzen ari dira. Mugimendu sozialak, auzo elkarteak, elkarte sozial eta kulturalak, oso garrantzitsuak dira herri dinamika indartsu egon dadin.

Geure herritasuna eta hori bera indartzeko eta babesteko, geure estatuaren beharra inoiz baino handiagoa dugu.